

1908

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXVII garren urtea)

"¡AURRERA!"

I

GEZURRA dirudi, baña atzera begiratzea bezelakorik ez da aurrera nola joan bear degun jakiteko. Alferrik ibilli nai ez duenak, egunak era urteak galduaz zer egin ez dakielako, nondik datorren eta nola etorri dan ikasiko du. Eskuitik sasia eta otea arkitu baditu, ezkererontz artuko du, bide zuzenetik joateko: ezkerrean bazekazkien ayek, eskuirontz. Esan oi da, gizon bat bera izanagatik lan bat asi ta bukatzen duena, lan ori luzea danean, eta luzaro irauten duenean, asi zuena bukatzen duenaren ikaslea dala. Eta ez dago gaizki esana. Begiak ongi zabaltzen dituenak lan bati ekiteko, geroago ta gauza geiago ikusten ditu egunoro darabilen langintzan. Urteak asko erakusten dute, eta gizon arroa izanagatik, ez da biziro argitsua izango, urteak erakusten digutena ikasteko alegiñean ez dabillena. Gauza guztiak dituzte beren sustraiak: sustrai oriei begiratzea izango da noski egokiena, gauzari indarra eman nai diogunean sustraitik ez datorren indarra, ez da egiazko indarra: ezer gitši aski du osoro galtzeko, osoro utseratzeko.

Euskal-itz-jostaldien Batzarrea jaso nai badegu, geroago ta geyago pizkortu nai badegu, begira zaiogun sustraitikan, ikusi zagun nola jayo zan, eta nola bizi dan oraindaño, emendik aurrera nola bizi bear duen jakiteko, eta sortu litezkean eragozkaiak lendanaz alde batera kentzeko.

II

Jose Manterola zanari (bakoitzari berea eman bear zaio) zordioigu batik-bat *Donosti-ko Euskal-itz-josta* Ldien *Batzarrearen* izatea. Euskal-erriaren maitetasunez sututa zegoen gizon argidotar eta maitagarri ark, gure izkuntz anziña-anziñakoaren pizkortasuna billatzen zuen, eta bildu zituen gure itz-neurtu eta eresi, len banakatuta zebiltzanak, zuaitzetik aizeak kendutako ostoak ibilli oi diran eran. Itz-neurtu zarrak biltzea etzan aski: berriak sortzea bear zan, era berri oek geroago ta ederragoak izatea. Eta berri oek sortzeko, ¿zer egin zitekean? Sari batzuek eskeñi onenak, egokienak jartzen zituzte nai. Egia esateko, ez dira beti indar-neurtze oetan saritzen diran eresiak, onenak, bikañenak izaten. Eresirik ederrenak, gañ-gañekoenak, barrenbarrendik, nai ta nai ez bezela, biotzeko sugarrrik bizienarekin datozenak, dira. Baña oiek ateratzea gure eskuan ez dago. Jaungoikoak daki noiz ta nola sutu bakoitzaren biotza, ta argitu bakoitzaren burua. Lenlengo gizonak esan oi zuten, eresi bat esaten zuenak, etzuela berez ezer egiten: *Musa-k*, isillik, eta beste iñork entzuten etzuela, esaten ziotela, gero berak beste gañerakoai aditzera ernaten ziotena.

Manterola-k, eta Manterola-ren lagunak (zeiñ ziran esan bearrik ez da, guztiak dakitelako, euskalzale beetakoen artean) egin zuten berak egin zezaketena. Etzegoen beren eskuan iñoren buruan argitasun zerukoi bat piztutzea, eresi ezin ta ederragoak ateratzeko. Gauza oriek besteren biotzean isiotu ta sututzea, gizonaren indarrak ezin lezake: goragoko indarra bear da. Ordea, ori ala izanik—eta Manterola-k ongi zekien ori orrela zana—eziñ ukatu diteke, zenbat eta tšalo geiago jotzen zaion ereslari bati, kemen eta indar geiago ematen zaiola bere egin bideari jarraitzeko. Iñork entzuten ez dion ereslaria, danik eta onena izanagatik, laster isilduko da. Gizon baten burutik, eta burutik baño oraindik geiago biotzetik sortzen dan eresi batek, entzule askoren biotzetako oiarzunarekin artzen du bere indarra. Onetan, beste gauza guzietan bezela, azaltzen zaigu, gizona ez dala lurraren gañean sortu, bakarrik bizitzeko.

¿Zer egin zitekean, bada, ereslariai pizkortasuna emateko? Manterola-k eta bere lagunak egin zutena: onenak ateratzen zituztenai, sariak eskeñi. Orrekin ikusiko zan batetik, euskera zarra etzala basteurrean utzi bear zan gauza, ezertarako etzana. Bestetik, euskaldunak

ikasiko zuten euskeraz agertzen beren barren-barrendikako naikunde eta gogoerak. Ikusiko zan, *bersolarientzat* bakarrik sortua etzala euskera. Beren buruak zerbaitetzat zeukazkiten gizonak, ere izkuntz orretan mintza zitezkean. Euskeraz esango zan beste edozein izkuntzetan esaten zana. Euskerari indarra emateko, etzan au bide tsarra. Euskaldunak giñala esan, eta euskera alde batera utzi, etzan gauza egokia. Euskera jaso bear zan, Euskerak burua jasotzea yainkoak nai duelako, Aita Kardaberaz-ek esaten zuenez, eta buru-jasotze ori iristeko, ¿etzan egokia noizik bein, alik eta otsik aundienarekin, euskeraz ongiena eresten zutenai sariak ematea? Ala egiten zuten gure anai Lapurdi ta Suberoa-koak, urte askoz lenagotik. Abbadie jaunak, euskaltasunari iraunerazteagatik, urteoro ematen zituen sariak, Euskeraz-itz neurturik egokienak jartzen zituztenai. Eta Bidasoaz aronzgo gure anaien artean, gure artean baño ereslari geiago zan. Ikusten zanez, sari oek etziran alferrikakoak. Gure artean jartzea ere, ongi etorriko zan, eta ori da Manterola-k eta bere lagunak egin zutena.

1879-garren urtean eman ziran lenbizi sari oek. Orretarako, lagundu zuen Uriko Batzarrak, lagundu zuen Gipuzkoa-ko Ekautuen Bilguma edo *Diputazioak*, lagundu zuten Donostian bertan ziran Elkartasun batzuek; baño ori etzan aski. Iru urte barru ikusi zan zerbait geiago egin bear zala, eta sortu-zan Donosti-ko *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea*, eta an izan zan andik aurrera, urteoroko indar-neurtzeak nola egin bear ziran, eta indar-neurtze oyetan zer sari emango ziran, erabakitzen zuena.

Batzen onen lanak etziran alferrikakoak izan. Begien aurrean daukagun egia da ori, eta erraz ikusiko degu, zuzenki begiratzen badiogu. Geroago ta eresi geiago sortu ziran (gure iritzian, geiegi ere bai), euskera goratu zan, Biltokian ikusi ziran, euskeraz ateratako irudierak, gure arrantzaleen, gure baserritarren izaera azalduaz; eta gaur *Euskaldun-fedea* irudiera oriek erriz-erri eraman baditu, *Euskal-itz-jostaldien Batzarreari* zor zaio. Batzarre onen ondorengoetako bat bezela jaio zan *Euskaldun-fedea*, eta jaio litezke oraindik beste euskerazko lanetarako sortutako elkartasun berriak. Lurrean sartzen dan azi bakarretik osto ta lore eder asko ateratzen da: *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea* izan da azia: ¿norik daki andik sortu litezkean lore ta ostoak, euskera zarraren apaingarriak?

III

Alaz guziaz ere, *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea* ez da irit̄si guk nai genukean tokiraño, ez da goitu ta zabaldu bear ainbat ¿Zergatik? Galdera oni erantzuteko, itz bat baño geiago bear da.

Ainbeste eresi agertu ta sarituagatik, oraindik ezin esan genezake, gure erriak eresi gañ-gañeko bat duenik. Azkue, apaiz argidotarrak, euskeraren maitatzalle gartsuak, ala dio: «¿Euskal-eresia ote da?...» «Eresiz beteak ditu erri onek beronen erraiak, eta eresiari bikaiñ bat, beste errietakoen ondoan agertzekoa, ez da gaur arte jayo. ¿Nola du izena Euskal-erriko Homero-k, Virgilio-k, Dante-k, Calderon-ek, Shakespear-k, Goethe-k eta Victor Hugo-k?»

EHEGAYKO KARMELO.

(Jarraituko da).



1908

Euskal-itz-jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXVII garren urtea)

"¡AURREERA!"

(JARRAIPENA)

«Euskal-eresia bizi dala uste det, baño illunpean, lurrak bere erraletan urre ta zillarra dauzkan bezela. Euskal-erriak berietan badu zerutik jetsitako argi-su eder ori, eresia badu, noizean bein, eta gutsien uste dan gizonen aoz agertzen du burua; baño berealaſe, kirkir gaisoak, beren tſirri-tſirri ikasi gabeari utzita, zuloan ezkututzen diran bezela, gure eresiak ere, erdal-otsen igesi, lasterka estaltzen du bere burua, ama zarraren magalpean.»

Egia dio, buruz argia bada, biotzez illunago ez dan Azkue jaunak. Euskeraz eresi asko degu: gizaldi guzietan gogoratzen diran eresi biotz pozgarri oietakorik, ez. Lenago esan degu, eresirik onenak, bati nai ta nai ez bezela sortzen zaizkionak dirala. Eresi bikain oriek barrenbarrengo suarekin piztuta datozelako argi egiten dute. Ez da Batzarrik, eresi oriek sorterazitzeko bear dan indarra duenik. Donostiko *Euskal-itz-jostaldien Batzarreari* ezin eskatu leikioke gizonaren indarrez gora dagoen gauzarik. Baña, au ala izanagatik, ¿utzi bear dira, alde batera, urteero egiten diran indar-neurtzeak? Gure iritzian, ez. Ez eresi onak bereala izateko, baizik, euskera zarra geroago ta ederkiago apaintzeko, egin bear dana, da, indar-neurtze oriek zerbait aldatu ta

(1) *Euskal-eresia. Euskal-Esnalea-ren* irugarren zenbakian.

berriotu. Lenbizi egin bear dana, sari bat besterik ez eskeñi itz-neurtuetan azaltzen diran lanentzat: beste guztiak, itz-neurtugabekoentzat.

Lenbiziko urteetan egin zana ongi dago. Lenengo lanak, izkuntza guzietan, neurtitzetan agertzen dira. Baña ogei ta geiago urte igaro ezkeroztik, bide berri bat artu bear degu. Batetik, itz-neurrigabean agertzen diran irakurgaiak, ugaritzeko bidea billatu. Bestetik, itz-neurtuetan egiten diran eresiak, zar ta gazte, aundi ta t̄siki, gizon ta emakuma, guztiak erraz ikasteko modua arkitu. Orretarako, gauzarik egokienetako bat izango litzake, saria ematen zaioten eresiak, lenagoko soñu zarrai itsasteko eran jartzea. Bata, *Mariya, nora zuaz*, bezela kantatzeko; bestea, *Pello Jošepe* bezela; bestea, *Tšanton Pipirri* bezela; bestea, *Intšauspeko alaba* bezeia. Orrela laster zabalduko lirake euskaldunen artean, eta biotzetik biotzera euskaldunak eramango luteke, su berria biotz bakoitzean artuaz, eta indar geyagorekin iñotuatuz. ¿Au iristea, ez litzake *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea-rentzat* pozgarria? Banaka batzuen artean bakarrik ezagutzen dan gauzak, ez du iñoiz askoren artean ezagutu, eta askok maitatzen duten gauzak duen pizkortasunik: eziñ iraun lezake onek ainbat: ezin sartu litzake ain lurperaño bere sustraiak. Eta ez dago esan bearrik: zenbat eta ondorago lurpean sustraiak sartu, ainbat eta naigarriagoa da, berak ematen duen itzala. *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea-k* nai luke, bere itzalpean euskalzale guztiak ikusi. Orretarako alegiña egin bear du bere sustraiak oso ondora euskal-biotzetako lurean sartzeko: ala, artuko du bere gogo zuzenak betetzeko bear duen indarra.

Baña, batik bat, nai litekeana da, itz-neurri-gabez egintako lan geiago. Neurtitzak askotan belarriari poz ematen diote, barrendik utsak izanagatik. Izkuntza bati indarra emateko, biotza bete ta burua argitzen duten itzak bear ditugu. Gañera, len esan degun bezela, neurtitzak, onak izango badira, barren barrendik etorri bear dute, batek nai ta nai ez bezela ipintzen ditu, itz aiek ipiñi bearrak pakean uzten ez diolako. Itz neurtugabeakin ez da ori gertatzen. Oeek jarri litezke batek nai duenean; batzuetan obeki, besteetan, gaizkišeago, baña beintzat beti irakurlearen biotza irabazteko nai dan eran. Au esan ezker, jakiña da guk nai genukeana, *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea-ren* izena geroago ta geiago zabaldu dedin. Saririk geienak itz neurtugabekoetan egintako lanentzat eskeintzea. Irakurgai onak baditugu orain euskeraz: badegu *Kresala*, laster izango degu *Garoa*. Irakurgai berri ta ederrak izan ditzagun bideak zabaltzea, ¿zer lan egokia, Donostiko

Euskal-itz-jostaldien Batzarren- rentzat! Orretarako, sari onak eskeñi, eta lendanaz, al-bada urte betez aurretik, zer sari emango diran adierazi. Sari onak izen aundia ematen dio saria irabazten duen lanari, eta lan orren egilleari. Sariagatik egingo ez litzakeana, izenagatik, aoz ao ibiltzeagatik egiten da. Gure biotzean itsatsita daukagu, gure izena goratunaia. Eriotzaz geroztik, izena argiz inguratuta geratzeagatik, ¿zer mirarizko gauzak ez ditu gizonak egin! Eta lan oen egillea, lan oiek *Don Quijote* eta *I promessi sposi* diranean, gizaldiak igarroagatik, ezaguna izaten da. *Cervantes* era *Monzoni*, luranean bizi zirananean beziñ ezagunak dira gaur, geiago ezpadira.

Lendanaz. t̄sit lendanaz aditzera eman ezkerok zer sari eskeintzen diran, beste lan geiago ere egin litezke, eta egin bear dira. Kondairari dagozkioten lanak, eta batik bat, errietan esaten diran sukalde-basterrereko ipui ta esaerak bildu. Alde guztietan ari dira ipui ta esaera oriek biltzen: ¿nola ez ditugu guk bildoko gureak? *Peru* ta *Maria*, aurrai beren izaera ta bizibideak esateko bakarrik, ez dira: izan litezke gure burua argitzeko, *Peru* ta *Maria-ren* bitartez ikasten badegu, gure ipuietan zeñ diran oso ta benetan gure-gureak, eta zeñ diran beste errietatik artuak. Ez da jatorrizkoa dirudien ipuia baño errezago alde batetik bestera joaten dan gauzarik. Bakoitzak bere antzera apainduagatik, sarritan zortzi edo bederatzi erritan esaten diran ipuiak, ez dute iturburu bat bederik. Gauza oek argitaratzeko, ez da bakoitzak bere ipuiak arretaz billatu ta biltzea baño oberik; agure ta atso zar-zarren aotik entzunta al-bada, zarrak obeto gogoratzen dituztelako orrelako gauzak.

Lendanaz aditzera ematea zer sari emango diran, eta sari onak eskeintzea ez da aski: zerbait geiago egin bear da, indar-neurtze oek pizkortu nai baditukú. Esan bear da, ere, *onelakok* eta *alakok* erabakiko dute, zer lan sarituko diran, eta berak orretarako dituzten arrazoiak. Saritzen dana, zergatik saritzendan: sari-gabe gelditzen danak, zer utsune dituan. Ala, erabakitzalleen iritzia zabaltzean, guztiak badakite, non dauden lan bakoitzaren edertasunak, eta non bere zatarkeriak. Au da, ez dakitenai erakusteko modurik egokiena.

IV

Gauz oek guztiak egiteko dirua bear da. ¿Nola bildu bear dan ainbat?

Lenbiziko urteetan, *Donosti-ko Euskal-itz-jostaldien Batzarrea-k* eskeintzen zituen sariak, Donosti-ko bertako biltokian ematen ziran, artarako izendatzen zan gau batean. Betetzen zan biltokia, eta sarbideakin artzen zan dirua izaten zan sariak erosteko, eta beste gauza geiagotarako. Gero, Gipuzkoa-ko Ekautuen Bilguma edo *Diputazioa-erriz* erri urteoro bere euskal-festak egiten asi zanean, erabaki zan festa edo jaialdi oien artean, *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea-ren* indar-neurtzeak sartzea. Ondo egina zegoen ori, bada ala, *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea*, Donostitik ateratzen zan, eta Gipuzkoa guzira bere egitekoak zabaldu; baña alaz guztiaz ere, urteak asko erakusten dute, eta guri erakutsi digute, orrek bakarrik ez duela *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea-ren* lana izan bear. Erriz erroko indar-neurtze oietzaz gañera, berritu bear dira lenago urtean bein Donosti-ko biltokian egiten ziran billerak. Ez da orretarako, indar-neurtze berririk egin bear: Aski da, neguko gau bat aukeratu,—al-bada, Eguberri inguruan obe izango litzake—eta Donosti-ko biltokian euskal-usaia darrion billera bat egin. Ortarzko bear dan laguntza arkituko litzake, Donostia-ren izenagatik, eta batik-bat Euskera jasotzeagatik guztiak lagunduko luteke, bakoitzak bere al-eginean.

Billera ortatik, ez litzake dirua bakarrik aterako: Donosti-ko *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea-ren* izena goitu ta argitsutuko litzake gañera. Batak eta besteak lagunduagatik, beren laguntzarekin esker bizi ta biot-biotzekoak irabazten dituztela, *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea* agertuko litzake guztiez gañetik, *Batzarre* orri zor zaiolako billera eder ura egitea. Gauza bat aitatzen ez danean, erdi-illik balegoke bezela da. Zenbat eta geiago aitatzen dan *Donosti-ko Euskal-itz-jostaldien Batzarrea* aiñbat eta pizkorrago biziko da, ainbat eta portizkiago iraungo du.

¿Zer egin liteke billera orretan? Jostirudi bat edo beste, alik eta egokienak, eta al-dan ederkiena eta biziroena jarriak: irakurgairen bat irakurri, ortarako irakurle azkar bat billaturik; itz-aldi bat edo beste, ere ongi etorri liteke, iztun artakorik arkitzen bada; eta utsune guztiak, batzuen eta besteen bitartean gelditzen diran utsuneak, ¿zerekin ederkiago bete, kantari ta soñu-jotzalle bikaiñakin baño? Orrelako billera batera joan nai ez lukeanik, ez litzake izango. Orain baño len ikusi degu Biltokia tsit beteta orrelako billerak izaten ziranean. ¿Zer dala ta geldituko litzake orain bete gabe?

Urte oetan, *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea-k* egiten dituen in-

dar-neurtzeak, itzalpean bezela igarotzen dira. Gipuzkoako Ekautuen Bilguma edo Diputazion-ren itzal aundiak estaltzen ditu. Ori ongi dago. Diputazion-ren izenak berarekin daraman begirunea itsasten dio berak egiten dituen gauza guztiak *Euskal-itx-jostaldien Batzarrea* t̄sokoa eta ezkutatutz gelditzea, gauza utsa da, orrekin euskera jasotzen bada. Baña guk uste degu, bi gauzak iritsi eitezkeala: Euskera jaso, ta *Euskal-itx-jostaldien Batzarrea-ren* izena argitu ta zabaldu. Egin bitez ortarako, urteoro indar-neurtzak, orain egiten diran antzera, Diputazion-ren itzalpean. Ezkutatu bedi, bear bada, egun oietan, Donosti-ko *Euskal-itx-jostaldien Batzarrea*, baña azaldu bedi, eta burua lerdin jaiki beza Donostian, neguko gau baten Biltokian egiten dan billeran.

Beste modu geiago ere billatu litezke bere lanetarako *Euskal-itx jostaldien Batzarrea-k* bear duen dirua, biltzeko. Sari onak ematen, eta sari orien bitartez irakurgai ederrak eta ipui-talde egokiak biltzen asiko balitz, bere lanak emango lioteken aomen eta izena izango litzake biderik egokiena, erri batek baño geiagok, Batzarreari laguntzeko, gaur Donostia-koak egiten duen antzera: Lan asko egiñ, eta lan oek azalera agertu ezkerok ¿nork ukatu eskatzen zaion laguntza?

Epeltasunak alde batera utzi, eta aurrera ta aurrera nekatu gabe, ta indarrrik galdu gabe jarraitzen bada, asko egin liteke. Eta egingo da, guk benetan ala nai badegu. Baña ortarako ez degu etsi bear, gure bidean eragozpen bat edo beste arkituagatik. Nekez iristen diran gauzak, izan oi dira ongiena iristen diranak, geiena dirautenak. Gure aurretikoak, lo-zaleak izan balira, bereala etsi izan balute, etzuten Euskal-erriaren alde egin zutenaren erdirik egingo. Elkano bat izutu izan balitz gauzak eroso etzetozkiolako, etzuen lur guztia inguratuko bere ontzi tsikiarekin. Ez ekaitzak, ez iñoiz ikusi gabeko itsasoak izutu zuten Ketariar gaiñ-gañeko ura: ¿izutuko gera gu, indargabetuko gera gu, gure bidean, arri-koskor bat edo beste arkitzen degulako? Ala egingo bagenu, derizkiot ez letorkigula ondo Euskaldunaren izena. ¿Euskalduna izan, eta aizea bezela aldatu eskuitik ezkertera, Ifarretik Egoara?

V

Dirua bakarrik ez da bear, gauza oek guztiak egiteko. Diruak ez lezake dena: diruak baño geiago lezake biotzeko suak. Eta su au piztu

bear da biotz guztietan, batzuetan indar geiagorekin, besteetan gutsi-
seagorekin, berenez apal-samarrak diralako.

Su au piztutzeko, *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea*-ri dagokiona da bere burua zabaltzea, *Batzarre-koak* diran euskal-zaleak-geitzea. Eriotzak ez dio inori barkatzen, eta lenbiziko *Batzarre* au sortu zutenetatik, ez dira gitsi gure artetik obiz aronzko bizitzara joan diranak. Joan zan Manterola; joan zan bere ondorengo Arzac; joan zan Irastorza; joan zan Gorostidi; joan zan Otaegui; joan zan Eleizalde; joan zan Artola; joan ziran beste geiago. Eriotzak egin dituen utsuneak jeta zer utsuneak! bete bear dira. ¿Nola bete, gazteakin baño obeto ta egokiago? Aritz zar eunka urteak dituztenak, urteoro osto berriz apaintzen dira. ¡Apaiñdu bedi, ere, *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea* gaztetetasunak dakarren indar eta alaitasunarekin, eta pizkortuko da, eta bere burua jaso ta izena argitsutuko du! ¿Ez da ori guztiak nai deguna?

ECHEGARAY'KO KARMELO.

(Jarraituko da).



1908

Euskal-itz-jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXVII garren urtea)

“¡AURRERA!”

(BUKAERA)

Baña ¿zer gazte ekarriko ditugu, *Euskal-itz-jostaldien Batzar* onetara? Batzarrea sortu zanean jarri ziran aginpideak erakusten digute. Sari bat irabazten duten guztiak. Saridun dunak dute Batzarreko izateko eskubidea. Sartu bitez, bada, eta ongi etorriak izan ditezela. Bakoitzak egin dezala al-duan guztia lagun berriak billatzeko, eta ala *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea* zabalduko da Euskal-erri guztira. Geroago ta batzartar geiago izango du, eta batartar geiagorekin indar geiago.

Oraindik beste gauza bat ere egin liteke, eta egin bear da. Lenda-bizi *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea* sortu zanean, *Batzarrean* sartu ziran denak euskal-zaleak izanagatik, etziran guztiak saridunak, etziran guztiak euskeraz itz-neurtu edo neurtugabeetan beren jakintasuna edo beren biotzeko nai ta gogoerak erakutsi zituztenak. Ori bera egin bear da orain. ¿Badago emen edo an, euskeraren alde, edo gure soñu zarrak zabaltzeko lan asko egin duen zaldun bar, edo burua zuritutako agure begirunegarri bar? Bada ekarri Batzarrera, eta ala bear bada, eta bere urteakgatik, edo bere izenagatik, edo dituen ezaguerakgatik, beste inork baño geiago egin balezake Batzarrea goratzeko, Batzarreko burutzat izendatu. Buruak, danik eta azkarrenak izanagatik

ere, noizik beñ aldatzea ongi etorri oi da beti. Buru berri bakoitzak indar berri bat ekartzen du. Eta ez degu inondik etorri litekean indarrik galdu bear. Askoren indirrak elkartu eta baturik, tsit gora igo gintezke.

Zein diran Batzarrean sartzeku eskubiden dutenak neri ez dagokit esatea. Oriek izendatzeko, Batzarrea-k bildu bear du lenbizi, eta Batzartar guztien artean erabaki zeñek izan bear duten Batzartar berriak. Eta izendatzen diran bezin laster, berriro bildu Batzarrea, baña orain zar ta berri guztiakin. Era orduan aukeratu buru izan bear dutenak, eta Batzarreak andik aurrera artu bear dituen neurriak, eta ibilli bear dituen bideak. Guztien artean egiten diran gauzak, guztien baimenarekin jaiotzen dira. Denen artean gauza batera etortzea, ez da gaitza: guztiak nai dute Euskeraren argitasuna, eta Euskeraren argitasun ori iristeko ¿nork ez du alde-batera utziko bere iritzia esaten diona, beste gañerakoak iritzi orri ongi ez baderizkiote?

Ez inoren okertasunagatik, baizik gauzak ala etorri diralako, *Euskal-itz-jostaldien*, *Batzarrea* ez da urtetik urtera aurreratzen joan guztiak nai genukean bezela. Aurreraerazi beardiogu, bakoitzak bere aldetik alduena egiñaz. Len gertatu danak erakusten digu zer egin bear degun emendik aurrera Atzera begiraturik ikasi det nere iritzian, *Euskal-itz-jostaldien* *Batzarrea* jasotzeko egin bear dana. Ez naiz gauza berri-zalea; baña ezta ere, beti batean dauden zarrak ontzat daukazkie-na. Sustraiak lengoak dira, baña urteoro ostoak, berri ta mardul azaltzen zaizkigu, begien pozgarri. *Euskal-itz-jostaldien* *Batzarreari* lengo sustraien gañean eutsi bear diogu; baña ostoak beti berrituaz, indarra erbaltzen eta barrengo bizitasuna epeltzen joan ez dedin.

VI

Oraindik, *Euskal-itz-jostaldien* *Batzarrea* igo liteke tontorgoietaraño, guztiak bultzatzen badiote alegiñean. Egun batean egiten ez dana, illabetean egingo da; illebetean egiten ez dana, urte betean: ez da aspertu bear bereala, ez diogu nagitasunari gure gañ jartzen utzi bear, lenbizikotik gauzak, guk nai bezela, ez atereagatik. Len atzera šamar gelditu bagera ere, orain aurreratu bear degu, len galdu deguna baño geiago irabaziaz. Guztien aurretik jartzen bagera, guztiak gure ondoren etorriko dira.

Baserritarren euskera apaindu dezagun, baña baserritarren izatea eta usaia galdu gabe. Uri aundi ta anziñakorik ez izanagatik euskaldunak beti izan ditu, Jaungoikoak ala emanik lurrean diran bi gauzarik aundienak: mendiak eta itsasoa. Eta mendiak eta itsasoa izan dira euskeraren laguntzallerik bikaiñenak. Mendian, baso-tartean, aritzez eta gaztañaz estalirik dagoen baserrian bizi dan nekazaria, eta itsasoarekin burruka, era bere afarrakin bustirik dabillen arrantzalea, beti izan dira eta beti izango dira euskeraren maitatzalleak. Nekazarietatik eta arrantzaleetatik ikasi genezake euskeraz nola itzegiten dan, ez aiek esaten dituzten itz guztiak berdin-berdin esanaz, baña euskal-jatorri garbikoak diranak beren aotik artu eta geronera eramanez. Langilleen esakerak ez dira alde batera utzi bear. Langilleak itsatsi oi diote, beste iñork baño obeki, izkuntza baten izaera berekiari. Gizonik aundienak, argitasunik bizienekoak, ezaguta eta aitortu dute egia ori. Aita *Rivadeneyra* argidotarrak, bere liburu ezin ta ederragoak egiten ari zanean, nekazari, arotz eta beste orrelakoai galdetzen zien bere izkera ongi zegoen edo ez. Eta *Monzoni*, Italia-ren poz ta argitasuna dan gizon gogoangarriak, *Florenzia-tik* ekarri zuen bere etsera neskame bat, aren izketa entzun-ta egokiago atera zitezen, bere *I promessi sposi* deritzaion irakurgai biotz-gozagarrian azaltzen zituen itzaldiak. «Itzegitea—dio, Españian izan diran gizonik jakintsuenetako batek (1)—aditzetik dator, eta itzak ez dira barren-barrenen ikusi ta entzuten degunaren irudi bat baizik.» Zenbat eta garbiago ateratzen degun ezpañetara, barrenen entzuten degun itz ori, ainbat eta iztun egokiagoak izango gera. Barrengo berotasunarekin datorren itza, da itzik biziena. Itz ori da entzuten dagoenaren biotzean errazena sartzen dana, biotz ura epeldutsoa egonagatik, lenago piztu ta iñiotzen duena. Gauza oek guztiak gogoan artzen badira, *Euskal-itz-jostaldien Batzarrea* egiten dituen indar-neurtze ta billeretan, euskerak ez du ezer galduko. Euskeraz azaltzen diran lanak, euskerazkoak izan bitez, mami ta azal; ez euskerazko itzakin apainduagatik, barrendik, mamiz, erderazkoak diranak.

Eta euskerazko lan benetakoak egiten diranean, nekazarien euskera apaintzen danean, itz-neurtugabeakin jarritako irakurgai eta beste lan eder geiago zabaltzean, errazago izango da gure artean ereslari aundi bat sortzea: gure *Lope*, gure *Shakespeare*, gure *Dante*, gure

(1) Fray Luis de León.

Goethe, Azkue apaizak eskatzen zuen ereslari bikaiña, Euskal-erriaren izena, gizonik aundienak bezin egoki, egokiago ezpada, zabaldu, goratu eta argi dizardariz inguratuko duena.

Ez da euskeraz ezin esan litekean gauzarik. *Platon-en* itzak euskeraz entzun ditugu, eroso *Axular-ek* jarri dizkigulako. Eta ez uste Platonen itzak euskeraz esateko, baserritarrak alde batera utzi bear ditugula. *Courier* zeritzaion Franzia-ko iztun buruazkarrak, esan oi zuen *Homero-ri* gaurko egunetako izkuntzetan itzeragiteko, baserritar eta nekazarien antzera itzegitea zaia biderik laburren eta zuzenena. Ori bera egin zuen, gure artean, *Moguel*, Markiña-ko seme argidotatarrak: *Ciceron-i* eta *Salustio-ri* euskeraz mintzoerazteko, *Peru Abarka* artu zuen erakusletzat, *Basarten* arkitu zuen ikasolarik onena. Basartera joan gintezeke gu ere askotan, euskeraz ongi ikasteko. Aritz eta pago-tartean, garoak goizean daukazkien intz tantoakin ditzidiz egiñaz, agertzen zaigu gure euskera zarra. Ekarrri dezagun urira, apaindu dezagun alegiñ guztia, baña besteren soiñik jantzi gabe. Beregan badu nai ainbat edergarri, arretaz billatzen badegu. Edergarri oriekin apaindu bear degu, ez besterekin, zomorro antzera agertu ez dezagun bere arpegia estaliaz, eta besteren irudia artuaz. Izan bedi bakoitza dan bezelakoa, eta ez bedi lotsatu Jaungoikoak eman dion izaerarekin. Edertasun guztiak, gerokgandik atera bear ditugu, barrenrik datorren argiarekin alaitu. Azalean dagoen argia, erraz itzaliko da: danik eta indarrrik gitiñienarekin aizea ateratzen dan beziñ laster.

Euskal-itz-jostaldien Batzarreak geroago ta geiago begiratu bear dio baserritarrari. Lurpetik ateratzen diran urre ta zillarrarekin pitñi argitsu lilluragarriak egin oi dira. Gure euskerak bere zakontasunetan ezkutatuta bezela daukazkien urre ta zillarra, baserritarren artean daude. Andik atera bear ditu *Euskal-itz-jostaldien Batzarreak* ezin ta ederkiago leundu ta argia dariotela azaltzeko.

Ala egiten badu, bere indarra geitu lezakean guztia bereganduaz, bere izena egunetik egunera joango da maitagarriagotzen euskaldun benetakoen artean: euskera apainduko da, bere baratzen sortzen diran osto ta lore usai gozokoakin, eta Euskal-erriak aitortuko du asko zor diola Donosti-ko *Euskal-itz-jostaldien Batzarreari*.

Egun eder oriek, gure biotzeko begiakik ikusten ditugun pozgarritzko egun oriek lenbait-len etorri ditezen ¡aurrera! ¡beti aurrera! nekeak mendean artuaz, neke guztiak ontzat idukiaz. Lurrean lanean aritzen danari, nekazaria esaten diogu nekearen bitartez iristen duela-

ko bere bizitzarako bear duena. Galazia ereiten duenetik garia jacotzen duen artean, zortzi edo bederatzí illabetean itsōdoten du. ¿Ez degu guk itsōdongo bear ainbat, orain ereiten degun euskal-aziak euskaltasun ugariak eman ditzan? Baiña bitartean ez gaitzela lotan egon; ez dedilla egun bat bederik igaro, zerbait egin gabe. Beti batean dagoena, laster atzeratua geldituko da: eta guk ez degu atzeratuta gelditu bear: gure deadarra da, eta dedarrarekin gure egitekoa, *¡aurrera! ¡beti aurrera!*

ECHEGARAY'KO KARMELO.

